



2007ko TXOSTENA

EUSKADI  CUBA

## Egin zaituz bazkide. Bazkide egiteko, honako bide hauek erabil ditzakezu:

Zure datuak hurrengo helbidera bidaliz:

EUSKADI-CUBA: Prim kalea, 43 P.K: 48006 - Bilbao

Telefono honetara deituz: 94 415 11 07

Posta elektronikoa honen bidez:  
bilbo@euskadicuba.org

Gure web orriaren bidez: www.euskadicuba.org

## Datu pertsonalak

Izen-abizenak:

Helbidea:

P.K: Herria:

Herrialdea:

Telefonoa:

E-maila:

## Kuota-aukerak

25 euro/urtean (Ikasleak eta langabetuak)

50 euro/urtean

100 euro/urtean

Beste kopuru bat

## Ordainketa-aukerak

Banku-helbideratzea: kontu-zenbakia (20 digitu)

Ingresatu Euskadi-Cubaren Kontuan (Euskadiko Kutxa)

Kontu-zenbakia: 3035 0134 46 1340030003

## EUSKADI KUBA:

NORTZUK GAREN, ZER EGITEN DUGUN

3

## LANKIDETZA ARLOA:

KUBAN LANTZEN DITUGUN LANKIDETZA PROIEKTUAK

4

## SENTSIBILIZAZIO ARLOA

NOLA AZALTZEN DUGUN KUBA

9

## KOMUNIKABIDEEN ARLOA:

ARRAKALA BAT HEDABIDEEN BLOKEOAN

13

## GENERO TALDEA:

BARNEAN HASTEN DEN BIDEA

14

EUSKADI  CUBA

Prim, 43 48006 BILBO

Tel.a: 94 415 11 07 Faxa: 94 405 66 17

bilbo@euskadikuba.org

**Simone de Beauvoir**  
**Elkarteen Etxea**

San Ignacio de Loyola 8 - 3º, 4. bulegoa

01001 VITORIA - GASTEIZ

Tel.: 945 24 49 86

gasteiz@euskadicuba.org

www.euskadicuba.org  
www.cubainformacion.tv

EUSKADI-KUBA Kubarekiko adiskidetasuna, lankidetzeta eta elkartasun politikoa lantzen dituen elkarte bat da. Elkarreak lankidetzan, premiazko laguntzan, garapenerako heziketan eta sentiberatze politikoan dihardu, eta Kubako Iraultzarekiko baldintzarik gabeko atxikimendua du ardatz nagusi.

Esparru horiek lantzen ditugu, jakinean baikaude horixe dela abiapuntua, eta tresna, Kubak bere programa sozialari eusteko borroka politikoan behar duen Elkartasun Mugimenduari laguntza emateko. Hori dela eta, proiektuak Kubako garapen sozialerako eskema nazionalean integratuta daude, eta guk gure laguntza eskaintzen diegu bai kubatar Estatuari bai kubatar komunitate erakundeei, hala AEBen blokeo ekonomikoaren kontrako borrokan nola justizia sozialari lotutako proiektua zaindu eta sakontzeko lanean.

Kubaren alde gaude, nazioarteko testuinguruan herrialde hau kontzeptu alternatibo bat gauzatzen ari baita, hau da, Elkartasunaren Globalizazioa; horren erakusgarri, bi adibide labur:

- Hegoaldeko herrialdeetako milaka ikasle Kuban dohainik ari dira prestakuntza jasotzen.
- Kubako milaka medikuntzako eta hezkuntzako profesional modu solidarioan ari dira lanean herrialde pobreetan, osasun eta hezkuntza garapenerako dozenaka programa aurrera ateratzen, Hegoalde-Hegoalde lankidetzaren barruan.
- Kubaren lorpen sozialak defendatzen ditugu, lorpenok justizia sozialaren eta elkartasun proiektu baten fruitu direnez gero, non Estatuak bere gidari rolari eutsi dion.
- Biztanleen %100entzat doakoak dira hala osasun zerbitzuak nola hezkuntza, eta analfabetismoa hutsaren hurrena da.
- Biztanleko, medikuntza profesionalen ratioa munduko onena da.
- Bizi itxaropena, Kuban, herrialde aberatsenetan dagoenaren parekoa da: 78 urte.
- Haur hilkortasuna, 1000 jaiotzako 5,4 da; Latinoamerikan, berriz, 1000 jaiotzako 52 da batez beste.

Gainera, Kubak Estatu Batuen eskutik pairatzen duen blokeo ekonomiko bidegabearen aurkako borrokan dihardugu, blokeo horrek Kubaren garapena baldintzatu eta herritarrei gabezia larriak eragiten baitzkie.

EUSKADI-KUBA kubatar Iraultzaren programa sozialen barruan egongo den lankidetzaren aldeko apustua egiten du, giza garapen iraunkorren kontzeptuan oinarrituta. Tokiko esparruan zentratutako proiektu solidarioak dira, dimentsio ekonomiko, sozial, politiko, ekologiko eta kulturala biltzen dituztenak eta kubatar garapen prozesuari parte sozialetik eta generoen arteko ekitatetik abiatuta laguntzen diotenak.

1996an hasi zen garapenerako lankidetzaren lana Habanan, etxeetako bizi-gaitasuna hobetzeko proiektuei lagunduz. Gaur egun EUSKADI - KUBA hainbat udalerritako tokiko erakunderi laguntzen jarraitzen du, komunitate garapenerako proiektuen bitartez, lankidetzaren lanaren zatirik handiena Kuba Ekialdeko probintzietan egiten badu ere. Inguru horretan elikadura subiranotasunari lotutako ildoaren barruan sartzen diren ekintzak lantzen dira, eta horretarako hirikonekazaritzarilagunduetan nekazaritza nahiz abeltzaintza kooperatibak sendotzeko lanean ari gara (ur horniketa, azpiegiturak nekazaritza irizpide eta irizpide ekologikoen bidez indartu, gaikuntzak etab.), eta baita energia berriztagarrien erabilera sustatzen ere, bai garapen produktiborako ekintzetan bai komunitate garapenerako ekintzetan ere. Beste lan ildo estrategiko bat, gure proiektu guztietan generoen arteko ekitatearen bidean aurrera egiteko gaikuntza eta sentiberatasuna bultzatzean datza. Eta Kubatar Emakumeen Federazioarekin batera dihardugu, emakumeei enplegu ordaindua eta zuzendaritza postuak eskuratzen laguntzeko proiektu espezifikoei.

EUSKADI-KUBA, halaber, LAGUNTZA MATERIALA helarazteko jardun etengabea dihardu, Poder Popular de Ciudad La Habana-k Euskadin dituen ordezkariekin batera. Egitura antolatua daukagu eta baita biltegi zentral bat ere, Santurtzin (Bizkaia). Bidaltzen ditugun materialak hauek dira, besteak beste: eskolako materiala, ibilgailuak, botikak eta medikuntza ekipamenduak, liburuak, informatika materialak, tresnak, pneumatikoak, etab.

2007. urteaz esan dezakegu zenbait proiektu amaitzeko urtea izan dela, non laguntza materiala oraindik oso garrantzitsua izan den, eta beste proiektu batzuei ekiteko urtea, non integritatea nagusitu den, argi markatuta dagoen ardatz zentral baten inguruan: elikadura subiranotasunaren inguruan. Horixe izan da, era berean, urtean zehar landutako eta 2008an zehar ere lantzen jarraituko dugun hainbat proiekturen ardatza.

### 2007. URTEAN AMAITUTAKO PROIEKTUAK

#### *“Eusebio Hernández” Gineko-Obstetrika Irakaskuntza Ospitalea suspertzea (Habana)*

Proiektu honek ospitaleko zenbait arlo birgaitu eta teknikoki hobetzen lagundu zuen. Egindakoen artean, hauek aipatuko ditugu: multzo elektrogeno, gas eta aireztapen sistemak, galdarak eta igogailuak erostea eta baita osasun zentroko sukaldea goitik behera errehabilitatu eta hornitzea. Proiektua Eusko Jaurlaritzak finantzatu zuen FOCAD-2003 deialdiaren bidez, horretarako 320.274,67 euro jarrita; tokiko ekarpena, berriz, 106.759,72 eurokoa izan zen.



#### *Luyanó Modernoko Herri Kontseiluko Osasun arloko lehen mailako atentzioaren garapena*

Kubak biztanleria osoari osasun arloan eskaintzen dion lehen mailako atentzioa, garapenerako ardatz estrategikoa da Uharteko Osasun Publikoan. Kontsultategiak Fisikoki Errehabilitatu eta Ekipamenduak Hobetzeko Estatu Planari lagunduz, proiektu hau Municipios por la Salud edota Comunidades Saludables estrategian txertatuta dago. Proiektuarekin komunitatearen parte hartzea eta bereziki San Miguel del Padrón-go (Habana) emakumeen parte hartzea sustatzen da, eta horretarako udalerrian osasunaren egoera zein den jakiteko diagnostiko bat lantzen da genero ikuspegitik.

Proiektuaren aurrekontu osoa 838.370,76 eurokoa izan zen; diru horretatik 596.889,91 euro Eusko Jaurlaritzak finantzatu zuen FOCAD-2003 deialdiaren bidez, eta tokiko ekarpena, berriz, 241.480,85 eurokoa izan zen.

### *Yateras-ko (Guantanamo) nekazaritza eremu isolatuetao etxeak eguzki bidez elektrifikatzea*

Biztanleen bizi kalitatea hobetzen laguntzeko proiektu honekin, eguzkitiko elektrizitatea lortu nahi da elektrizitaterik ez daukaten biztanleentzat. Hala, emakumeen etxeke lanen karga murriztu nahi da, eta baita familiaren osasuna hobetu ere, elikagaiak kontserbatzeko hobekuntzen bidez. Halako proiektuek migrazio joera eta landa eremua uzteko joera txikitzen laguntzen dute, hain justu ere, herrialdea kooperatiben bidez nekazaritza produkzio iraunkorraren aldeko apustua egiten ari denean.



Proiektuaren lehen etapan, 66 etxebizitza elektrifikatu ziren eta horretarako Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketa izan zen 2005eko deialdian (115.000,00 euro); gaur egun, 2006ko deialdiaren barruan, 60 etxebizitza elektrifikatzen ari dira. 2007ko deialdiaren barruan, finantzaketa hauxe da: Abanto Zierbena (1.466,40 euro), Amurrio (5.563,89 euro), Barakaldo (13.353,24 euro), Basauri (22.951,52), Etxebarri (5.986,02 euro), Irun (11.000,00 euro) eta Gasteiz (47.988,50 euro). Tokiko ekarpena 167.055,93 eurokoa da.

### *Urbano Noris-ko (Holguin) udalerrian lehorteak jotako kooperatibak garatzeko laguntza*

Proiektu hau udalerrian izandako lehorte delata kalteturik gertatutako hamar kooperatibatako bazkideen eta horien familien autogestioa eta bizi zein lan baldintzak hobetzera bideratuta dago.

Batez ere, kontu hauek landu ziren:

- Ur hornidura ziurtatzen duten azpiegiturak jartzea
- Ekoizpen Kooperatiboko Oinarrizko Unitateetan abeltzaintzako ekoizpen azpiegiturak eraldatzeko laguntza
- Azienda xeheko familia abeltegi txikiak instalatzea
- Familiako hazkuntzako langile kooperatibistak trebatzea

Proiektuari 172.821,72 euro eskaini zaio guztira; diru horretatik 68.721,72 euro tokiko ekarpenari dago kio eta Bizkaiko Foru Aldundiak, 2005eko deialdian, 115.000,00 euroekin finantzatu zuen.



### *Habana Hirian emakumeek lanpostu ordaindu eta erabakitzaileak eskuratu ahal izatea*

Proiektu honekin, **emakumeari eskubide eta aukera berdintasuna** osoki erabiltzen lagundu zaio, hala arlo publikoan nola pribatuan, bizitza ekonomiko, politiko eta sozialean emakumearen parte hartze aktiboa sustatuz. Proiektua, beraz, emakumeek lanpostu ordaindu eta erabakitzaileak eskuratzeko dituen aukeretan zentratu zen eta sentiberatze eta gaikuntza programa baten inplementazioaren bidez landu zen, hainbat talderi zuzenduta: langileei, Kubatar Emakumeen Federazioko kolaboratzaile eta boluntarioei, Kreditu eta Zerbitzuetako Kooperatibetako kooperatibistei, sindikatuei, masa erakundeei eta komunikabideei.

Bilboko udalak finantzatu zuen, 50.684,46 euroekin, 2006ko deialdiaren bitartez; eta baita FMCK ere, 73.425,22 euroekin.



## UNEKO PROIEKTUAK

### *Nerabeei zuzendutako Atentzio Integrala sendotzea*

Proiektu honek azpimarratzen duenez, nerabeen osasun integralaren alde aurrera ateratzen diren

ekimenak ugaritu eta optimizatu beharra dago, Rio Cauto udalerrian, Granmako probintzian. Proiektuak nerabeentzako, osasun eta hezkuntzako profesionalentzako eta familietako aita-amentzako gaikuntza jarduerak biltzen ditu. Gainera, laneko zentroak errehabilitatu eta ekipamenduak jartzen ere badihardute, eta Nerabeari Atentzio Integrala eskaintzeko Zentroa sortu dute.

Proiektua Eusko Jaurlaritzak onartu zuen FOCAD 2005 deialdian eta 259.911,66 euroekin finantzatu zuen; tokiko finantzaketa, berriz, 132.386,90 eurokoa izan zen.

### *"El lechero" komunitatearen garapen integrala Realengo 18n (Guantanamo)*

Proiektu honen bidez, azpiegitura produktiboa suspertu eta dibertsifikatu egin zen, eta horretarako produkzio sistema berriak ezarri ziren, lehorreei, biztanleen gaikuntzari eta azpiegitura sozialari aurre egiteko, horixe baita biztanleek euren garapen integralari-ekonomiko eta soziala-berrekiteko oinarria, beti ere modu iraunkorren, ingurumenarekiko errespetuan, inolako komunitate bazterketarik gabe eta biztanleriaren bizi kalitatea hobetzeko bidean.

Lan proposamena Eusko Jaurlaritzak onartu zuen FOCAD-2006 deialdian, eta 215.000,00 euroekin finantzatu zuen; tokiko ekarpen ekonomikoa, berriz, 60.565,32 eurokoa izan zen.

### *Nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioaren dibertsifikazioa, garapen sozioekonomikoaren ordezkoko aukera gisan, Manuel Tames (Guantanamo) udalerrian kanabera lantzen duten Ekoizpen Kooperatiboko Oinarrizko Unitateetan*

Proposamen honekin, Guantanomoko azukre industria birmoldatzen ari deneko nekazaritza eremuetako komunitateen baldintza sozioekonomikoak hobetzen laguntzen da, kanabera ekoizpena nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpenera birmoldatzea bultzatuz, eraldatze eta dibertsifikazio prozesu baten bitartez. Esku hartze honen barruan zera biltzen da: nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen azpiegitu-

rak sortzea eta hobetzea, nekazaritza eta ekologia irizpideei jarraituz; gaikuntza integralerako programa bat inplementatzea, genero ikuspegitik, gaitasunak eta pentsamolde aldaketak garatuz, bai produktio-ari eta gestio iraunkorrari lotutako aspektuetan bai subjektibotasunean, generoen arteko erlazioari dagokionez; eta komunitateetako zerbitzu nahiz azpiegiturak indartu eta hobetzea.

Probintzian abiarazten den mota honetako lehen esperientzia da; hori dela eta, Guantamorako erreferentziazko proiektuzat jotzen da, Azukrearen Ministerioko (MINAZ) eremuetan birmoldaketa teknologikoa bultzatzeko lanean. Eusko Jaurlaritzak 276.800,00 euro onartu zuen proiektu honetarako FOCAD 2006 deialdian; eta tokiko ekarpena, berriz, 155.697,59 eurokoa da.

### *Hiri nekazaritzaren ekoizpen ahalmenak hobetzea Granmako probintzian*

Proiektu honen bidez hiri nekazaritzaren garapena bultzatzen da, ikerketa zientifikoari, teknologiari eta gaikuntzari laguntza eskainiz; produkzio teknika egokien erabilpenean, hiriko nekazaritza ekoizleen gaitasunak hobetuz; Granmako Unibertsitateko Landare Bioteknologiaren Zentroan (CEBVEG) hiri nekazaritzari buruz egiten den ikerketa zientifikoa indartuz eta hiri nekazaritza garatzeko beharrezkoak diren ekoizpen azpiegiturak hobetuz; beti ere hiri nekazaritza teknologikoki egokia, iraunkorra eta ingurumenarekiko errespetutsua helburu.

Proiektua Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu zuen 116.900 euroekin 2006ko deialdian eta tokiko ekarpena 119.878,36 eurokoa da.

### *Holguingo probintzian, kanabera birmoldaketa egiten ari den inguruetao nekazaritza komunitateen baldintza ekonomikoak hobetzeko laguntza*

Proposamen hau Holguingo probintziako nekazaritza komunitateen baldintza sozioekonomikoak hobetzeko laguntzaren barruan dago. Horretarako, kanabera lantzen duten 4 Ekoizpen Kooperatiboko Oinarrizko Unitateren eraldaketa eta ekoizpen dibertsifikazioa indartu nahi da eta, horrekin batera, mugakide diren komunitateen bizi baldintzak hobetu nahi dira, honetara bideratutako esku hartzeen bidez:

1. Genero ikuspegitik, gaikuntza integralerako programa bat garatzea.
2. Nekazaritza eta ekologia irizpideetan oinarrituz, nekazaritzako eta abeltzaintzako azpiegiturak sortu eta hobetzea, ekoizpen unitateetako garapen programekin bat eginez.
3. Komunitateetan dauden azpiegitura sozialak indartu eta hobetzea.

Proiektu hau elkarrekin finantzatu dute, batetik, 2006ko deialdiaren bidez, Bizkaiko Aldundiak, 139.800,00 euroekin, eta bestetik, 2007ko deialdiaren barruan, honako udalek: Abanto Zierbenak, 2.850,00 euroekin; Barakaldok, 17.414,96 euroekin; eta Irunek, 18.250,00 euroekin. Tokiko ekarpena 54.690,94 eurokoa da.



### 2007an gestionatutakoak

IZENBURUA	KUBAKO ERAKUNDEA	HONEK FINANTZATUA	KANPOKOA	TOKIKOA	GUZTIRA
Yateras-ko (Guantanamo) nekazaritza eremu isolatuetako etxeak eguzki bidez elektrifikatzea	CUBASOLAR	Gasteizko Udala	47.988,50	38.513,85	86.502,35
Holguin-go probintzian, kanabera birmoldaketa egiten ari den inguruetako nekazaritza komunitateen baldintza ekonomikoak hobetzeko laguntza	ACPA	Abanto Zierbenako Udala	2.850,00	48.698,15	87.213,11
		Barakaldoko Udala	17.414,96		
		Irungo Udala	18.250,00		
La Corea auzoko komunitatearen ingurumen hobekuntza	La Corea garapen integralera-ko Tailerra eta ACTAF	Bilboko Udala	78.580,00	158.019,07	236.599,07
Holguingo Noris udalerrri urbanoan garapen kooperatiboari laguntza	ANAP	Arabako Foru Aldundia	130.124,72	42.544,65	172.669,78
Bayamo udalerriko ekosistema hauskorretan kokatuta dauden bi komunitatetan, abeltzaintza eta azpiegitura soziala modu iraunkorren berreskuratu eta indartzea	I.I.A.J.D.	Bizkaiko Foru Aldundia	127.100,00	424.840,08	551.940,08
Granmako probintzian, hiri nekazaritza eremuetan abereen ahalmen produktiboak indartu	CEBVEG	Bizkaiko Foru Aldundia	98.600,00	86.716,49	185.316,49
Manuel Tames udalerrian (Guantanamo) kooperatiben eta nekazaritza sektorearen garapen sozioproduktiboa bultzatu	ANAP	Eusko Jaurlaritza	277.600,00	111.388,93	388.988,93
El Salvador udalerrian, 4 kooperatibaren eta bertako komunitateen dibertsifikazio produktiboa eta sendotze soziala modu iraunkorren indartu	ACPA	Eusko Jaurlaritza	298.130,73	301.693,82	559.824,55

\* **ACPA:** Abere ekoizpenaren kubatar elkarteak  
**ACTAF:** Laborantza eta baso teknikarien kubatar elkarteak  
**ANAP:** Nekazari txikien nazio elkarteak  
**CEBVEG:** Granmako Unibertsitateko landare bioteknologiari buruzko ikasketa zentroa

**CUBASOLAR:** Energia iturri berriztagarriak eta ingurumenarekiko errespetua sustatzeko kubatar erakundea  
**I.I.A.J.D.:** "Jorge Dimitrov" nekazaritza eta abeltzaintza ikerketen institutua

Kuban gertatzen denari buruzko etengabeko informazio manipulazioa, eta baita gertatzen dena testuingurutik -hala geografikoa nola historikoa- ateratzeko joera ere, helburu honekin egiten da: kubatar gizartearen zenbait ezaugarri, hots, era negatiboan ager daitezkeenak, nabarmentzea; hala, agerikoak diren lorpen sozialak isildu egiten dira, asmo politiko nabarmen honekin: Kubaren eredia bideraezin, bidegabe eta antidemokratikotzat jotzea.

Egoera horri aurre egiteko, Euskadi-Kubaren sentiberatze arloak elkartasun politiko aktiboa lantzen du Kubarekin eta Kubako Iraultzarekin, iparramerikar blokeoak uhartean dituen ondorioak salatuz eta erakutsiz eta, hainbat jarduera eta proiekturen bitartez, Kubako errealitate sozial, politiko eta kulturala gerturatzeko ahaleginak eginez.

### *“Cuba Va, Kuba Bai” kanpaina*

“Cuba va, Kuba bai” kanpainaren bidez, kubatar errealitateari buruzko hainbat aspektu, eta baita Kubako garapen sozial, ekonomiko, kultural eta politikoaren eredia ere, Euskal Herrira ekartzen dihardugu.

2006. urtean, Kubak Hirugarren Munduko beste nazio batzuetan lantzen duen Hegoalde-Hegoalde izeneko lankidetzaren erakutsi genuen, Euskal Herriko Unibertsitatean izandako “Cuba: cooperación y desarrollo sostenible” jardunaldien bidez. Halaber, Kubako zinematografiaren bilakaera erakutsi genuen, “El Sur protagonista de su imagen. Realizadores y realizadoras de Cuba” Zine eta Lankidetzaren



Erakusketan, Mugarik Gaberekin batera hainbat euskal herritan antolatua; eta Kubako hezkuntza eredia, Oñatin izandako Euskal Eskola Publikoaren Jaialdian; baita Kubak Nazio Batuen Milurteko Helburuak bete izana ere; eta Uhartean generoen arteko ekitatean egindako aurrerapenak, hainbat jardunaldiren bidez.

2007an zehar, kanpaina honek sentiberatze lanarekin jarraitu zuen, honako jarduera hauen bitartez:

**Kubatar antzerkia:** “Los Triatrerros de La Habana” antzerki taldea Rene de la Cruzek, Omar Francok eta Salvador Palominok osatzen dute. Taldeak, Oscar Castoren “La Guerra” obraren egokitzapena antzeztu zuen, non hiru aktoreek etsaiaren bila ziharduten beste hainbeste pertsonaia eroren rola jokatu baitzuten. Eduki bakezaleko obra hori Bilboko Haceria Arteak-en eta Gasteizko Jesus Ibañez de Matauko antzokian aurkeztu zuten, “El Club de los Poetas Rojos” delakoaren “Preposiciones y proposiciones” poesia sozial eta iraultzailearekin batera. EUSKADI-KUBAK Irakeko gerraren eta okupazioaren kontrako mobilizazioen barruan bildu zuen jarduera, tropa inbaditzaileak sartu zireneko urteurrenean.



### **Kulturartekotasun tailerrak ikastetxeetan:**

Guztira, 28 tailer egin ziren urtean zehar Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Bigarren Hezkuntzako 10 ikastetxetan, eta DBHko 1. eta 4. maila bitarteko 689 ikaslek parte hartu zuten. Kubako errealitateari egindako hurbilpena hainbat ardatz tematikoren inguruan mamitu zen: Kubako eredu soziala, Kubaren testuingurua



Hegoaldeko herrialdeen artean, lorpen sozialak eta giza eskubideak, eta haurren zein nerabeen egoera Uhartean. Esperientzia honek Euskadiko eta Kubako ikasleen artean aurretik egindako bideogutunen trukaketa bati jarraipena eman zion eta arrakasta handia izan zuen bai ikastetxeetako irakasleen bai parte hartu zuten ikasleen artean.

### *Kubatar kirola*

Urrian zehar Erick Hernandez gure artean izan genuen. Erick-ek Guinness errekorra du baloi ukituan. Gure artean baita Juan Antonio Lotina ere egon zen, Kubako Futbol Eskola Nazionalako zuzendaria.

Jarduera hau Deporte y Desarrollo GKEarekin batera antolatuz eta euskal herri askotara iritsiz. Gainera, komunikabide ugari erakarri zuen jarduerak.



Erick-ek hitzaldiak eman eta baloi ukitu erakustaldiak egin zituen hainbat Lanbide Heziketako Institututan eta Euskal Autonomia Erkidegoko bibliotekatan.

Gainera, hainbat erakustaldi egin zuen jende asko eta askoren aurrean eta kirol prentsako profesional ugariaren aurrean.

Erick Hernandezek, berriro ere, baloiari eserita eta oinarekin jota, ukituen munduko errekorra hautsi zuen, 2 ordu 43 minutu eta 48 segundoko iraupenarekin. Gainera, hainbat jardueratan parte hartu zuen: baloi ukituen erakustaldiak egin zituen Bilbon, Pobreziaren Kontrako Nazioarteko Egunean; eta Durangon, Athletic-eko eta Realeko beteren arteko futbol partidako atsedendian.

Barakaldon, emakumezkoen arteko futbol partida bateko atsedendian; Erandion, erakustaldia herri horretako Lankidetzaz, Gazteria eta Kirol Arloak koordinatu zuen, eta haur eta gazte askoren aurrean egin zen. Erick-ek buruz egindako ukituen errekorra hautsi zuen (360 minutu batean).

Azken erakustaldia Gasteiz Cup-en izan zen, emakumezkoen futbol klubaren arteko topaketan, non 150 neskatila futbolarik aldibereko partidak jokatu baitzituzten.

### *"Cuba-Venezuela: ha nacido el ALBA" kanpaina*

Ha nacido el Alba Kuba-Venezuela sentiberatze proiektuaren bitartez, EUSKADI-KUBAK eta La Puebla Talde Bolibartarrak -Venezuelarekiko elkartasun erakundea- amerikar kontinenteko koiuntura berria gerturatu zioten euskal gizarteari, eta bereziki nabarmendu zituzten eskualdean abiarazitako prozesu politiko eta sozial berriak, zeinak herritarren parte hartzean, ekitatean eta justizian oinarritzen diren.

ALBAn (Amerikako Herrietarako Alternatiba Bolibarianoa) mamitzendirenelkartasunetalankidetzaz erlazio berriak eta Kubaren eta Venezuelaren arteko aldeko akordioak, eskualdearentzako integrazio eta garapen bide berri baten eredu direnak, kanpaina honen ardatza izan ziren.

Kanpainaren barruan, 20 bideoforum egin ziren hainbat herritan. Bideoforum horietan Kuba,

Venezuela eta ALBAri buruzko hainbat dokumental proiektatu zen. Gainera, 8 hitzaldi antolatu ziren, eta horien artean, batetik, Yolanda Rojasena nabarmenduko dugu (Venezuelako Errepublika Bolivartarraren Kontsul Nagusia Bilbon), "¿Hacia dónde va Venezuela?" izenburupean; bestetik, Vilbia Collazo eta Annet del Rey-ena -Kubako Inbertsio eta Atzerriko Lankidetzarako Ministeriokoa-, "Cuba y Venezuela: El ALBA de los pueblos" izenburupean; eta azkenik, Pascual Serranorena -kazetaria eta TeleSur-eko Aholkularitza Kontseilukoa-, "TeleSur: la voz de los pueblos del Sur" izenburupean.

Halaber, bi web orri eta bi hiru hilean behingo aldizkari editatu ziren, Kubako (Konpai aldizkaria) eta Venezuelako (Bolivar! Aldizkaria) errealitateen berri emateko, bi-biak uztartuta, bi herrion arteko integrazioa sinbolizatzen, eta kanpainari buruzko erdiko orri bikoitz komun batekin.

2007ko irailaren 21ean, kanpainari amaiera emateko, Kuba eta Venezuelarekiko elkartzuna adierazteko kontzertu jendetsu bat egin zen. Bertan, hauek izan ziren: Ttakunarin (Txalaparta), Karel Garcia (kubatar trobadorea), Sonora Sonora (Kubako Sona) eta Tambores de mi pueblo (Afro-venezuelar Fusio Musika).



### **Kubarekin Lankidetzan aritzeko II. Estatuko Topaketa.**

Topaketa 2007ko abenduaren 14, 15 eta 16an egin zen eta guztira Kubarekin adiskide diren elkarte, GGKE eta Kubako nahiz espainiar Estatuko erakundeetako 120 parte hartzaile izan ziren bertan. Kubarekin Lankidetzan aritzeko topaketa erabat arrakastatsua izan zen bai parte hartzeari, bai antolaketari bai edukiei dagokienez.

Txostengileen artean, bertan izan ziren Jose Rosado Amador, Kubako Atzerriko Inbertsio eta Kolaborazio Ekonomikoarako Ministerioko ordezkaria Europarako (MINVEC); Igor Irigoien, Eusko Jauriaritzako Garapenerako Lankidetzazuzendaria; Pascual Navarro, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiar Agentziako Mexiko, Ertamerika eta Karibereko Lankidetzazuzendariorde Nagusia (AECI); Angel Garcia, Oleiros-



ko (A Coruña) alkatea; Jose Antonio Barroso, Puerto Realeko alkatea (Cadiz), eta Juanma Balerdi, Euskal Fondoko zuzendaria (Euskal Herria).

Kubaren garapenerako lankidetzari buruzko hainbat gai aztertu zen sakonki, eta horretarako honako tailer hauek antolatu ziren:

- "Soberanía alimentaria", Kubako Nekazari Txikien Nazio Elkarteko (ANAP) ordezkariak eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak (EHNE) koordinatua.
- "Reconversión del sector azucarero en Cuba". Bertan izan ziren Kubako Azukrearen Ministerio-ko (MINAZ), Hegoako eta Mundukide GKEko ordezkari bana.
- "Transversalización de género en los proyectos de cooperación". Kubatar Emakumeen Federazio-ko (FMC) ordezkari batek eta Mugarik Gabe euskal GKEko Kubarako proiektuen teknikariak zuzendu zuten.
- "Medio Ambiente, Sostenibilidad Ecológica y Energías Renovables en Cuba". Cubasolar kubatar GKEko ordezkari batek eta Sodepaz-ek koordinatu zuten.
- "Proyectos de Sensibilización y Cooperación Cultural". Arduradunak izan ziren, alde batetik, EUSKADI-KUBA elkarteko komunikabide arduradun eta Cubainformación-eko koordinatzailea, eta bestetik, Kubatar Kulturari Nazioarteko Laguntza emateko Koordinazio Zentroko zuzendaria.



### *Elkartasun azokak*

Duela urte batzuetatik hona, EUSKADI-KUBA tokiko hainbat Elkartasun Azokatan parte hartzen ari da, esaterako, Amurrión eta Barakaldon antolatzen direnetan.

Azoka horiek espazio interesgarria eskaintzen digute bai lankidetzari proiektuetan bai sentiberatze proiektuetan egiten ari garen lana erakusteko; eta baita boluntarioei gure elkartean parte hartzeko gonbidapena egiteko ere.



### 2007 Komunikabideen Arloa



Komunikabide Arloaren bidez, EUSKADI-KUBA ahalegina egiten ari da publiko jendetsuari Mass Mediek Kubako errealitateaz eman ohi digutenaz bestelako bertio bat helarazteko. Badago hedabide erraldoiek osatutako talde bat, Kubari buruzko informazioa sistematikoki zentsuratzen eta manipulatzeko duena, kubatar Iraultzaren aurkako iritzi nabardurak sortuz. Kubari egiten zaion blokeoa, ekonomikoa ez ezik, informatiboa ere bada.

### Esku hartzea komunikabide konbentzionaletan

Alde batetik, elkarteak komunikabide konbentzionaletan eskaintzen dizkiguten espazioetan esku hartzen du. Horretarako, funtsezkoa da Euskal Herrian bizi diren eta EUSKADI-KUBAko kide diren kubatarren lana, lehenasunezko ahotsa baitute elkarteko bozeramaile gisan. Elkarrizketa eta eztabaidetan parte hartuz, eta hedabide handiek eskaintzen dituzten aukera urrien barruan beti ere, kubatar Iraultzaren kontrako eguneroko gezur eta kalumniak indargabetzen eta hedabideek ezkutatu edo desitxuratzen dituzten Kubako aurrerapen sozialak gerturatzen saiatzen gara.

### Cubainformación: arrakala bat hedabideen blokeoan

Bestalde, EUSKADI-KUBAK bere komunikabide propioak sortzeko apustua egin du. 2007ko maiatzaren 1ean CUBAINFORMACIÓN jaio zen, hau da, gure elkarteak Kubarekiko Nazioarteko Elkartasun Mugimendu osoarentzako sortutako komunikazio proiektua. CUBAINFORMACIÓN-en barruan, badago In-

ternet bidezko telebista, hiru hilabeteko argitaratzen den aldizkaria, eguneroko albiste web bat eta astean behingo irratsaio bat, Tas Tas Irrati Libreak Bizkairako ematen duena (97.0 FM). Euskarri horiek guztiak esku-ragarri daude Interneten, [www.cubainformacion.tv](http://www.cubainformacion.tv) multimedia atarian.

CUBAINFORMACIÓNek, bere esloganak adierazten duen bezala, arrakala bat izan nahi du Kubari hedabideek egiten dioten blokeoan, eta horretarako zera ezagutarazi nahi dugu: Kubako egia, justiziarik eta herri partaidetzari lotutako esperientziak, nazioarteko erakundeek bermatu dituzten lorpen sozialak eta beste herri batzuekin aurrera ateratako lankidetzak eta elkartasun programak; beti ere, errealismoz eta informazio zehaztasunez.

CUBAINFORMACIÓN sortu eta 2007ko gainerako 8 hiletan, maiatza eta abendua bitartean, Internet bidezko telebistan ia 900 bideo, 2.500 albiste eta 30 irratsaio argitaratu ziren, eta paperezko 4 aldizkari kaleratu ziren, hiru hilean behingo 13.000 aleko tiradarekin. Aldizkariak espainiar Estatuko 50 kolektibok baino gehiagok osatutako sare baten bidez zabaldu ziren.

Komunikazio proiektua, gainera, elkartasun, lankidetzak eta boluntariorik ekitaldi askotan aurkeztu da.

CUBAINFORMACIÓN sentiberatze proiektu gisan onartu zuen Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzak, Garapenerako Lankidetzak eta Laguntza Fondoaren (FOCAD) 2006ko deialdian. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu du proiektuaren diseinua eta martxan jartzea.



### Euskadi-Kubaren web orria

Cubainformación-ek gainera, EUSKADI-KUBAK bere web orri instituzionala dauka, [www.euskadicuba.org](http://www.euskadicuba.org), non gure proiektu eta jarduerak ezagutzera ematen ditugun. Web orria bazkideen eta kolaboratzaileen arteko barne komunikaziorako lotura da.

Euskadiko GGKEen Koordinakundetik gonbitea egin ziguten parte hartzeko, beste GKE batzuekin batera, genero autodiagnostikoa egiteko prozesu batean. Aukera ona zela pentsatu genuen generoen arteko ekitatea eta emakumeen jabekuntzari buruzko gaietan Elkarte zuzenean inplikatzeko, ildo estrategikoe-tan, erlazioetan, proiektuetan, komunikazioan, parte hartzeko moduetan eta erabakiak hartzerakoan.

Hala, 2007ko hasieran, elkarteko genero taldea abian jarri zen. Hainbat funtsezko faktorek eragin zuen taldearen sorrera:

- Genero ekitateari dagokionez elkarte honetan azken urteotan izan den kontzientzia hartzea.
- Emakumeen parte hartze gero eta handiagoa, bai boluntariorazan bai elkarteko arduradun karguetan.
- Elkarteko emakume batzuek topaketa, jardunaldi, biltzar eta abarretan parte hartzeko erakutsitako borondatea, gaiari buruzko hausnarketa espazioak sortzeko.

Autodiagnostikoaren lehen fasearen ondoren, genero taldea sendotu egin zen eta orain I. Ekintza Planaren lanketan dihardugu. Hona hemen lortu nahi diren helburu batzuk:

- Euskal eta kubatar emakumeek elkarte barruan eta kanpoan duten parte hartzea eta posizioa agerian jartzea.
- Gure elkartean emakumeen lidergoa handitzea.
- Arlo guztietan genero ikuspegiaren zeharkakotasuna inplementatzea.



- Genero berdintasunarekiko sentiberak diren eta feministak diren kubatar solaskideekin loturak egitea.

Oro har, esan dezakegu elkartean itxaropena sortu dela egindako lanarekin. Genero taldearen esku dago itxaropen hori EUSKADI-KUBA barruan "sexuen arteko gerra" eta "emakumeen kontu" huts ez bilakatzeko. Alde erantzira, EUSKADI-KUBAko gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren bidean, autodiagnostiko prozesuan parte hartzeko orduan errezeloak izan dituzten gizonen tartean sartzea da kontua.

